



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA

2016/06/22

Aldundiak suhiltzaileen parkea eregiko dau Zallan

Bizkaiko Foru Aldundiak hasiera emon deutso Zallan “une honetan dagoana ordezkaturako dauen” suhiltzaile parke barria eregiteko prozesuari, Enkarterriko eskualdeari zerbitzua emoteko. Holan iragarri dau gaur Ibone Bengoetxea Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako diputatu andreak Batzarretako Podemos Bizkaia taldeak egindako itaunari erantzunez, daborduko ohikoa dan moduan Abellanedako Batzarretxean egin dan udako lehenengo osoko bilkuran.

Foru Aldundia bukatzen ari da Zallako Udalagaz egiten ari dan negoziatzino prozesua, parke barria Kadaguako korridoretik gertu dagoan lur-sail batean egiteko. Leku hori Bengoetxeak zuzentzen dauen sailak markaturako helburuei erantzuten deuselako aukeratu da “komunikatzino bideetatik gertu”, “maldarik ez dauen” eta “urak hartu ezin dauen” leku batean.

Suhiltzaileen parke barria ezarteko administrazino prozesuaren barruan hitzarmena sinaturako da Zallako Udalagaz. Gaur egin dan iragarriagaz lehenengo pausua emon da Aldundiaren esku dagozan suhiltzaileen bi parke zaharrenak barriztetako, Enkarterrikoa eta Busturialdekoa, Goazen 2030 dokumentuan, legealdi honetarako Bizkaiko proiektu estrategikoak batzen dituan ibilpide orrian jasoten dan moduan.

Bengoetxeak adierazo dauenez, parkea “2018. urtearen bukaerarako” egon daiteke martxan, “3 milioi euroko” inbertsinoaren ostean, eta gaur egun Enkarterriko eskualdean zerbitzua eskintzen dauen parkeko –orain ia 40 urte eregitakoa– suhiltzaileak joango dira bertara. Hori dala eta, ez da beharrezkoa izango Enplegu Eskaintza Publikorik egitea.

OBRAK BI-3602 ERREPIDEAN ETA KUKULARRAKO ERAIKUNTZA PROIEKTUA

Sopuertan BI-2701 eta BI-3602 errepideen arteko intersektzioa hobetzeko egin behar diran obren egoerari jagokonez, behar horreek “fase bitan” egingo dirala adierazo dau Imanol Pradales Ekonomiaren Garapenerako diputatuak.

Sopuertako errepidea hobetzeko beharrak “2017. urtearen bukaeran” hasiko dira, une honetan Zalla eta Otxaran artean egiten ari diran beharrak amaitzen diranean. Obra horreek biak, orain denpora gitxi batzordean aurkeztu zan Bidesarea Planean jasoten dira.

Avanzadako errepidean “eten barik” gertatzen diran trafiko pilaketak dirala eta bere kexea agertu dauen PP taldeari erantzunez, une honetan Derioko lotunean egiten ari diran eta, batez be, Kukularrako lotunea hobetzeko egingo diran beharrakaz bere sailak errepide horren egoera arintzeko asmoa dauela adierazo dau Pradalesek. Pradalesek iragarri dauenez, bere sailak “idatzita dauka daborduko eraikuntza proiektua”.

Ekonomiaren eta Lurraldearen Garapenerako sailaren eretziz Kukularrako lotunearen hobekuntzea “funtsezkoa” izango da Eskumaldeko ardatzean izaten diran trafiko pilaketak arintzeko, baina puntu horretan dagoan trafiko intentsidade handia kontuan izanda, Aldundia



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

alternatibak aztertzen ari da obra hori “fasetan” egiteko, bideko segurtasuna bermatuz eta aurrekontuetan dagoana kontuan hartuz, kostu “garrantzitsua” izango dauelako. Denpora gitxi barru Batzar Nagusietan martxan jarriko dan errepideen PTS deritxonaren barruan zabalduko dan txostenean proposamenak planteetako gonbidapena egin deutse Pradalesek Batzarretako taldeei.

HOGEI BIZILEKU ETXEBIZITZARIK BAKO PERTSONENTZAT

Beste alde batetik, Teresa Laespada Enplegu, Gizarteratze eta Bardintasuneko diputatuak osoko bilkuran jakinarazo dauenez, “irailean” hasiera emongo jako Housing First (etxebizitza, lehenengoa) proiektuari, etxebako pertsonentzako “20 etxebizitza” prestatuz, Zubietxegaz sinatu dan eta RAIS fundazioaren laguntzea daukan hitzarmenari esker. Osoko bilkurea jarraitzen Sopuertako, Gueñeseko, Urtuellako, Balmasedako eta Artzentaleseko alkateak eta Esther Lasa Enkarterriko Mankomunidadeko presidentea egon dira.

ERREFORMA FISKALAREN BALORAZINOA 2016. URTEAREN BUKAERAN

Osoko bilkurari hasiera emoteko minutu bateko isilunea gorde da Gasteizen eraildako azkenengo emakumea gogoratzeko. José María Iruarrizaga Ogasun eta Finantzetako foru diputatuak, EH Bilduri erantzunez, adierazo dauenez, erreforma fiskala egiteko, “lehenengo” balorazinoa egin beharko da, 2016ko ekitaldia ixten danean, Batzar Nagusiek onartu eben azkenengo erreforma indarrean sartu eta urte bira.

Koalizino abertzaleak fiskaltasunaren gaineko “eztabaidea zabaltzea” eskatu dau, diru-bilketagaz erlazionautako aurreikuspenak ez diralako beteten ari. Apirilaren amaierara arte, aurreikuspen horreek hasierako aurreikuspenak baino “2,8 puntu beherago” egon dira, Arantza Urkaregik adierazo dauenez. Iruarrizagak zuzendu deutesonez, desoreka hori “%0,2ra” jatsi da maiatzera arte. Batzarretan barriro esan dauenez, jatsiera errazoi “koiunturalak” dirala eta gertatu da, petrolioaren prezioaren jatsierarengaitik, adibidez, hori dala eta BEZarengaitik gitxiago batu dalako, eta bestelako errazoiaren artean kapital higiezinaren atxikipean, loteria edo lurralde komuneko Soziedadeen Zergea kontuan ordaintzea aitatu ditu.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA
22/06/2016

La Diputación construirá un parque de bomberos en Zalla

La Diputación Foral de Bizkaia ha iniciado el proceso para construir un nuevo parque de bomberos en Zalla “en sustitución del existente” para dar servicio a la comarca de Enkarterri. Así lo ha anunciado hoy la diputada foral de Administración Pública y Relaciones Institucionales, Ibone Bengoetxea, durante la celebración del tradicional pleno estival celebrado en la Casa de Juntas de Abellaneda, en respuesta a una pregunta realizada por el grupo juntero Podemos Bizkaia.

La Institución foral está ultimando las negociaciones con el Ayuntamiento de Zalla para levantar el futuro parque en una parcela cercana al Corredor del Cadagua. La elección del emplazamiento da respuesta a los objetivos que se había marcado el departamento que dirige Bengoetxea de “proximidad a las vías de comunicación”, en un terreno “sin pendiente” y “no inundable”.

El proceso administrativo para la implantación del nuevo parque de bomberos incluirá la firma de un convenio con el Ayuntamiento de Zalla. Con el anuncio de hoy se da el primer paso para renovar los dos parques de bomberos más antiguos de la Diputación, el de Enkarterri y el de Busturialdea, tal y como se recoge en el documento Goazen 2030, la hoja de ruta que incluye los proyectos estratégicos de Bizkaia para la presente legislatura.

Bengoetxea ha señalado que el centro podrá estar en marcha “a finales de 2018” tras una inversión de “3 millones de euros” y será cubierto con el personal del parque que actualmente da servicio a la comarca de Las Encartaciones –construido “hace casi 40 años”-, por lo que no será necesario hacer una Oferta Pública de Empleo.

OBRAS EN LA BI-3602 Y PROYECTO CONSTRUCTIVO DE KUKULARRA

En relación al estado de ejecución de las obras de mejora de la intersección entre la BI-2701 y la BI-3602 de Sopuerta, el diputado de Desarrollo Económico, Imanol Pradales, ha informado que será desarrollada “en dos fases diferentes”.

Las obras de mejora del vial de Sopuerta comenzarán “a finales de 2017”, en cuanto terminen los trabajos que se están ejecutando actualmente entre Zalla y Otxaran. Ambas obras están recogidas en el Plan Bidesarea que recientemente fue presentado en comisión

En respuesta al PP que se quejaba de las “constantes” caravanas que sufre la carretera de La Avanzada, Pradales ha señalado que su departamento espera aliviar la situación de este vial con las obras que ejecuta en estos momentos en el enlace de Derio y, sobre todo, con la mejora del nudo de Kukularra. Pradales ha anunciado que su departamento “ha redactado ya el proyecto constructivo”.

El departamento de Desarrollo Económico y Territorial piensa que la mejora de Kukularra será “fundamental” para la descongestión del eje de la Margen Derecha, aunque la gran intensidad



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAI A

del tráfico en este punto obliga a la Diputación a analizar alternativas para que la obra sea ejecutada “por fases”, garantizando la seguridad vial y sin salirse de la senda de quilibrio presupuestario , debido a su “importante” coste. Pradales ha invitado a los grupos junteros a plantear propuestas dentro de la ponencia del PTS de carreteras que se abrirá próximamente en las Juntas Generales.

VEINTE VIVIENDAS PARA PERSONAS SIN HOGAR

Por otra parte, la diputada de Empleo, Inclusión Social e Igualdad, Teresa Laespada, ha informado en el pleno –sesión que ha sido seguida por los alcaldes de Sopuerta, Gueñes, Ortuella, Balmaseda y Artzentales, y la presidenta de la Mancomunidad de Encartaciones, Esther Lasa-, que “en septiembre” arrancará el proyecto Housing First (la vivienda, lo primero) con la habilitación de “20 viviendas” para personas sin hogar, gracias a un convenio firmado con Zubietxe y que cuenta con el apoyo de la fundación RAIS.

VALORACIÓN DE LA REFORMA FISCAL A FINALES DE 2016

En el pleno, que ha comenzado con un minuto de silencio en recuerdo a la última mujer asesinada en Gasteiz, el diputado foral de Hacienda y Finanzas, José María Iruarrizaga, ha respondido a EH Bildu que una reforma fiscal “tendrá que esperar” a que se produzca primero una valoración de la que impera ahora. Este análisis se producirá con el cierre del ejercicio 2016, dos años después de entrar en vigor la aprobada por las Juntas Generales.

La coalición abertzale pedía “abrir un debate” sobre fiscalidad por no estar cumpliéndose las previsiones de recaudación. Hasta el mes de abril éstas se situaron “2,8 puntos por debajo” de las previsiones iniciales, ha apuntado Arantza Urkaregi. Este desfase se ha rebajado a un “0,2%” hasta el mes de mayo, le ha corregido Iruarrizaga, para volver a reiterar en sede parlamentaria que el descenso se debe a razones “coyunturales” como la bajada del precio del petróleo que ha originado menos recaudación en el IVA, o las retenciones de capital mobiliario, la lotería y el pago a cuenta del Impuesto de Sociedades en territorio común.